

## Estibaliz Alkorta: “Enpresek legeak aitortutako eskubideak bermatu behar dituzte”

- Estibaliz Alkorta Barragan Lasarte-Oriko zinegotzia izateaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarako zuzendari nagusia da. Ingeniaritza tekniko industrialeko ikasketak eginak ditu, eta enpresa bateko kalitate kudeatzailea izan da. Buruntzaldeko lan mundua euskalduntzeko egitasmotik bideratutako galderei erantzun die. Hemen ideia nagusietako batzuk jaso ditugu. Elkarrizketa osorik irakurtzeko [hemen](#)
- “Aldundiaren kasuan, egin izan diren iritzi-inkestak arabera, herritarrek lotura garbia egiten dute erakunde batek eskaintzen duen zerbitzu-kalitatearen eta hizkuntzaren artean.”
- “Zalantzarik gabe. Kontratu publiko bat duen enpresa batek ingurumenaren edo gizon-emakumeen berdintasunaren alorretan gutxieneko arau batzuk bete behar dituen gisan, zentzuzko hizkuntza irizpide batzuk ere bete beharko ditu.”
- GFA eta Errealaren arteko hitzarmenari buruz: “Behin babes hori egin beharra zegoela erabaki ondoren, Aldundiak nahi izan du gizartean eta gazteen artean Errealak duen itzal sendoa baliatu, euskararen aldeko mezua plazaratzeko.”



## Diru-laguntzen deialdia

- Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2010ean kudeatuko dituen programen dirulaguntzen deialdia aurkeztu du.
- Enpresek LanHitz eta IKT deialdiak balia ditzakete euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko lantokietan eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan.
- Informazioa gehiago [hemen](#)



## Gidabaimena euskaraz

- Buruntzaldeko autoeskoletako ikasleek erabiltzen dituzten material digital eta paperezkoak euskaratu dira, gidabaimena ateratzeko adinean dauden gazte asko euskaldunak direlako eskualdean
- 2010. urtean zehar gida-baimena euskaraz prestatu eta ateratzen dutenen artean zozketa egingo da. Autoeskola bakoitzeko sari bana emango da: prestakuntza teoriko bat doan
- Informazioa gehiago [hemen](#)

## Urbanismoa eta hizkuntzak

- Zein eragin linguistiko izango du 44.000 biztanleko zonalde euskalduneari (%73) urtean 148.000 bisitari ekarriko dituen proiektuak? Galdera hori plazaratu du Busturialdean eraiki nahi den Guggenheim proiektuari buruz EHUko irakasle Josu Amezagak maiatzaren 29an Gara egunkarian (gaztelaniaz) argitaratutako iritzi [artikulu](#)an.

## Irabazleak

- “Ezetz asmatu 5 gezur borobilak!” lehiaketaren erantzun zuzenak eta irabazleen izenak dituzu [Buruntzaldeko webean](#). Zorionak irabazleei!



Andoain, Asteasu, Hernani, Lasarte-Oria, Urdetxe eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

[www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org)